

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Zaratamoko Udala

Ayuntamiento de Zaratamo

2017





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	10
III.2 Sarrera fiskalak	10
III.3 Langileria.....	11
III.4 Transferentizak eta emandako dirulaguntzak.....	11
III.5 Kontratazioa.....	11
III.6 Beste batzuk.....	12
IV. FINANTZAREN ANALISIA	15
V. URTEKO KONTUAK.....	19
ERANSKINAK	23
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera.....	23
A.2 Aurrekontua eta kontabilitatea	23
A.3 Zergak, tasak eta beselako sarrerak	24
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	25
A.5 Langileria-gastuak.....	26
A.6 Ondasun arruenteen eta zerbitzuen kontratazioa	27
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	28
A.8 Inbertsio errealeak eta aktibo ez arrunta	28
A.9 Zorpetzea	29
A.10 Zordunak	29
A.11 Hartzekodunak	30
A.12 Hirigintzako jarduerak eta Plangintza	31
A.13 Kontratazioaren analisia.....	32



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS	33
I. INTRODUCCIÓN.....	35
II. OPINIÓN.....	36
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	36
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	37
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	38
III.1 Presupuesto y contabilidad	38
III.2 Ingresos fiscales	38
III.3 Personal.....	39
III.4 Transferencias y subvenciones concedidas	39
III.5 Contratación	39
III.6 Otros	41
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	43
V. CUENTAS ANUALES	47
ANEXOS	51
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	51
A.2 Presupuesto y contabilidad	51
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	52
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	53
A.5 Gastos de personal	54
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios.....	55
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	56
A.8 Inversiones reales y activo no corriente	56
A.9 Endeudamiento	57
A.10 Deudores.....	57
A.11 Acreedores	58
A.12 Actuaciones urbanísticas y planeamiento	59
A.13 Análisis de contratación	60

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 29a
Vitoria-Gasteiz, a 29 de enero de 2020



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

AMAS	Autonomia Sistema eta Mendekotasunari arreta.
AO	Administrazio Orokorra.
AP	Aleko prezioak.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa.
BPG	Barne Produktu Gordina.
DBLO	15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzkoa.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
ED	Errege Dekretua.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EIOZ	Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga.
FA	Foru Araua.
FAG/FFAAg	Foru Agindua/Foru Aginduak.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiriko Hondakin Solidoak.
HILBIZ	Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.
LOP	Lurraren ondare publikoa.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OHZ	Ondasun higiezinaren gaineko zerga.
PFEZ	Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.
PGPN	Publikotasunik gabeko Prozedura Negoziatua.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
TMIZ	Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga.
TTEE	Tokiko erakundeak.
XG	Xedapen gehigarria.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Zaratamoko Udalaren 2017ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren ondarearen emaitza ekonomiakoaren kontua eta oroitidazkia ez ezik, aurrekontuaren likidazioa ere bai.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Zaratamoko udalerriak 2017ko urtarrilaren 1ko biztanleen udal erroldaren arabera 1.609 biztanle ditu eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren partaide da (uraren ziklo osoaren kudeaketa). Gainera, % 11,11ko partaidetza du Udaltalde XXI Nerbioi Ibaizabal SL sozietatean (ingurumenaren kudeaketa eta eskualdearen garapen iraunkorra).



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. Langile batek 1992az geroztik kontraturik gabe bete duen lanpostua langile funtzionarioentzat dago gordea Lanpostu Zerrendan (ikus A.5) eta horrek, bestek beste, urratzen ditu EFPLren 95.2 artikulua eta urriaren 23ko 2/2015 Errege Lege-dekretuaren 8.2 artikulua, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.

KONTRATAZIOA

2. Udalak 2017ko ekitaldian energia elektrikoa hornitzeko zerbitzua kontratatu zuen, guztira 86.284 euroren zenbatekoan, esleipen prozedurari dagozkion betekizunak saihestuta eta SPKLTBren 177 artikulua xedatutakoa urratuz.
3. 2001eko uztailan Udalak etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua esleitu zuen (4. espediente A.13n) bi urtetarako, luzatzeko aukerarekin. 2017ko ekitaldian, kontratuaren 4 urteko indarraldiaren gehieneko epea luze gaindituta lizitazio berririk batere deitu gabe, esleipendunak zerbitzua ematen jarraitzen zuen, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz. Adierazitako ekitaldian gauzatutako 177.444 euroren gastuek ez dute kontratu bidezko estaldurarik.

Epaitegi honen iritzira, Zaratamoko Udalak, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Ez dago euskarri egoki edo behar adinakorik Egoeraren Balantzean jasotako ibilgetu ez finantzarioaren saldoak 2017ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datozen ondorioztatzen utziko duenik, ezargarriak zaizkion printzipio eta balorazio irizpideei jarraikiz. Udalak ez du ibilgetu hori amortizatzeko zuzkidurarik erregistratu (ikus A.8).
2. Udalak ez dizkigu eskuratu 2017ko abenduaren 31n ebazteko dauden erreklamazio, epai edo auzi guztien xehakapena, zeinetatik obligazio edo pasibo kontingenteak erator bailitezke.

Epaitegi honen iritzira, 1 eta 2 paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Zaralamoko Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2017ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten du; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arautegian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2017ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen 2016ko abenduaren 31 baino lehenago egin, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 F Aren 15.2 artikulua agintzen duen moduan (ikus A.2).
- Finantzaketaren desbideratzeak eta Diruzaintza Geldikin bidez finantzatutako gastuak, hurrenez hurren, 23.597 euro eta 152.433 euro izan dira; eta ekitaldiaren emaitza kalkulatzeko baliatutako kopuruak, hurrenez hurren, 42.346 eta 61.166 izan dira; honenbestez, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza 110.016 euroan gehitu behar litzateke. Bestetik, 2017ko ekitaldiaren aurrekontu-likidazioan jasotako gastu orokorretarako geldikinaren zati bat, 49.296 euro, finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikina izango litzateke
- Udalkutzako 2015 eta 2016ko likidazio negatiboak, hurrenez hurren 99.171 eta 81.381 eurorenak, aurrekontuko finantza pasiboen kapituluan gastu modura jaso dira 2016 eta 2017ko ekitaldietan. Eragiketa horiek ondare-kontabilitatera eramateak eragin du egoeraren balantzean pasiboa oker minoratua egotea bi kopuruen batuketarekin, zeinak ondarean emaitzetara egotzi behar baitziratekeen (ikus A.11). Aurrekontuan zuzena zatekeen egozteak dirulaguntzen eta jasotako transferentzien kapituluko sarrera txiki modura, zegoen ekitaldietan.
- Balantzeko salgai dauden aktiboen idazpuruan erregistratu diren kontzeptuak aztertu ditugu eta ikusi dugu, gehienak aktibo ez arruntean birsailkatu behar liratekeen inbertsioei dagozkiela.

III.2 SARRERA FISKALAK

- TMIZaren zergadun nagusiak 2017an zerga hori zatikatuta ordaindu zuen, horretarako egindako eskabidearen arabera; ez zuen, baina, zor geroratu edo zatikatueterako udal ordenantza fiskal orokorrean aurreikusitako prozedura bete. Ez dago erasota organo eskudunak dagokion gerorapen edo zatikapenik onartu duenik, ez eta berandutza interesak kitatu zaizkionik ere. 2017ko ekitaldian zatikaturik ordaindutako kopurua 59.385 euro izan da.



III.3 LANGILERIA

- Funtzionarioentzat gordetako eta hutsik dauden LZko hiru lanposturi dagozkien egitekoak aldi baterako lan kontratuak dituzten beste hainbeste langilek betetzen dituzte; kontratuak 2003, 2004 eta 2010ekoak dira (ikus A.5).

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

- Ez da betetzen informazioa emateko obligazioa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 20. artikulua arautzen duena.

III.5 KONTRATAZIOA

- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko jarraibideak finkatu, lan-harreman bat aitortzeko erabakigarritzat jo litezkeen ekintzak saihestearren, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren 1. xedapen gehigarriak agintzen duen moduan.
- Orokorrean, administrazio-klausula berezien agiriak onartzen direnean ez dira Idazkariaren eta Kontu-hartzailearen txostenak aurretik egiten eta azken honek, gainera, ez du krediturik badelako ziurtagiririk jaulkitzen (SPKLTBren bigarren xedapen gehigarriaren 6. eta 7. atalak).

Kontratazio espedienteak (ikus A.13)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden zazpi kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalera zuizkigu:

- Ekitaldian 107.364 euroren gastua eragin duten hiru kontraturen xedea (5, 6 eta 7 espedienteak A.13an) plantilla organikokoak diren lanpostuen egiteko orokor propioari dagokio, eraginpeko zerbitzuaren kudeaketa arruntari buruzkoak, eta esleipendunek egiteko horiek gutxienez 2014az geroztik bete dituzte.
- Guztira 490.260 euroren zenbatekoan esleitutako 2 kontratutan (1 eta 3 espedienteak) honako akats hauek azalera dira pleguetan barne hartutako esleipen irizpideetan:
 - Kontratu baten pleguetan barne hartutako formula aplikatzean (3 zk. espedienteak), prezio batek lizitazio tipoa berdinduz gero, puntuazio positiboa eskuratuko luke eskaintza ekonomikoaren irizpidea baloratzean. Beste kontratu batean (1 zk. espedienteak) asebetetze-atalaseak finkatzen dira irizpide hori baloratzean eta horrek eskaintza ekonomikoagoak eskuratzeko pizgarria kentzen du.
 - Azken kontratu honetan baloratu egiten da esleipen irizpide modura udaleko enplegu-poltsako langile bat birkontratatzea. Nahiz onargarria den langabeziaren aurkako borrokan lagundu dezaketen baldintzak ezartzea, ezin onartuzkoa da eskaintzak baloratzeko irizpide modura, ez baitago kontratuaren xedeari lotua.



Gainera, herritarra izateko eskakizunak urratu egiten du kontratazio publikoan buru egin behar duen ez-bazterkeria printzipioa (SPKLTBren 1. artikulua).

- Izaera pertsonaleko datuak tratatzea eskatzen zuten hiru kontraturen kasuan (3, 5 eta 6 espedienteak), 512.906 euroan esleitutakoetan, ez zen aintzat hartu SPKLTBren hogeita seigarren xedapen gehigarrian erabakitakoa, DBLOren 12.2 artikuluaen aurreikuspenei buruzkoa.
- 116.291 euroan esleitutako beste obra-kontratu batean (1. espedientea) berandutzak izan dira kontratua betetzean eta ez da epe luzaketarik batere bideratu edo ez zaio kontratistari zehapenik batere ezarri. Obrak hartzean atzeraldia zortzi hilabetekoa izan zen obrak egiteko hiru hilabeteko epearen gainean. Aipatu obraren likidazioa lizitazio aurrekontua baino % 17,5 handiagoa izan zen, kontratuaren aldaketa onartu zenik jaso ez dela.
- Hiru kontratu (2, 6 eta 7 zk. espedienteak) betetzen jarraitu zen 2017ko ekitaldian, nahiz pleguetan aurreikusitako –edo legez onartutako- luzapen kopuru gehiengoa gainditua zen. Adierazitako ekitaldian gauzatutako 126.795 euroren gastuek ez dute kontratu bidezko estaldurarik. Zehatz esanda, hona hemen aipatutako kontratazioen datuak:

XEDEA	ESLEIP. DATA	GEHIEN. INDARR.	GASTUA 2017
HOS jaso eta garraiatzea.....	urr-01	urr-05	69
Laguntza teknikoa hirigintza gaietan.....	abe-14	abe-16	35
Laguntza ekonomikoa.....	abe-11	abe-15	23
GUZTIRA			127

Administrazio-kontratazioko espedienterik gabeko gastua

- Udalak ez du administrazioko kontratazioko nahitaezko espedientea izapidetu 34.579 euroren argien hornidura kontratu batean.

III.6 BESTE BATZUK

Ondarea eta ondasun-zerrenda

- Udalak ez du Udalbatzak onartutako ondasun eta eskubide guztien zerrendarik (ekainaren 13ko 1372/1986 EDren 17 eta 34 artikulua, toki erakundeen ondasunen arautegia onesten duena), ez eta Udal Ondare Publikoa osatzen duten ondasun eta baliabideena (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 112.3 artikulua, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gardentasuna

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Udalak webgunean argitaratu behar lituzke, besteak beste, tokiko ordezkarien ondasun eta jardueren urteko aitortpenak eta izenpetutako hitzarmenei eta emandako dirulaguntza eta laguntzei buruzko datuak.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeei buruzko informazioa

- 2017ko urtean ez ziren hornitzaileei ordainketarako aurreikusitako epeak bete izanari buruzko hiruhileko txostenak mamitu (merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen uztailearen 5eko 15/2010 Legearen 4.3 artikulua (abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena).

Zorren kobrantzaren kudeaketa

- Hirugarren batek 10.939 euro zor dizkio Udalari 2013ko urteaz geroztik alokairu kontratu bat dela-eta; hirugarren honek 3.030 euroren bermea gordailatu zuen kontratu horren berme modura, baina kontratua ez da gauzatu.





IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2015(*)	2016(*)	2017	2015	2016	2017
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	825	889	881	511	555	548
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	1.260	1.347	1.271	781	842	789
Ondare sarrerak (5. kap.)	100	21	61	62	13	38
A. Diru-sarrera arruntak	2.185	2.257	2.213	1.354	1.410	1.375
Langile-gastuak (1. kap.).....	637	769	730	395	481	454
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.)	1.200	1.243	1.080	744	777	671
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	76	65	86	47	40	53
B. Funtzionamendu gastuak.....	1.913	2.077	1.896	1.186	1.298	1.178
Aurrezki gordina (A-B).....	272	180	317	168	112	197
- Finantza gastuak (3. kap.).....	3	1	-	1	-	-
Emaitza arrunta.....	269	179	317	167	112	197
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	18	119	101	12	74	63
Aurrezki garbia	251	60	216	155	38	134
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	-	150	213	-	94	132
Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	309	331	227	191	207	142
- Inbertsio errealak (6. kap.)	399	522	434	247	326	270
- Emandako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Kapitalezko eragiketen emaitza	(90)	(41)	6	(56)	(25)	4
Eragiketa ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.)	179	138	323	111	87	201
Diruzaintza Geldikina	250	262	464	155	164	288
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	47	28	422	29	17	262
Zorpetzea.....	42	20	-	26	13	-

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: 2016an % 3 egin dute gora aurreko ekitaldiaren aldean eta % 2 behera 2017an; honenbestez, aztertutako aldi guztira % 1eko bariazioa izan dute. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Diru-sarrera hauek % 8 egin dute gora 2016ko ekitaldian aurreko ekitaldiaren aldean, baina % 1 murriztu ziren 2017an; horrek aztertutako aldi % 7 inguruko igoera izatea ekarri du. EIOZ kontzeptuan aitortutako sarreren fluktuazioaren eragina murriztuz gero, bai 2016an izandako igoera, bai 2017ko behardiala areagotu egiten dira eta hurrenez hurren, %10 eta % 4 izatera aldatzen; sarreren igoera garbia, berriz, murriztu egin da (% 5).
- **Zerga zuzenak:** % 11 egin dute gora aztertutako aldi. Bariazio horretan eragina dute, batik bat, OHZak eta TMIZak, bi-biek ere oso bestelako bilakaera izan dutelarik, izan ere OHZari lotutako diru-sarrerak % 62 egin dute gora aztertutako aldi, eta TMIZari lotutakoek, berriz, % 21 behera. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren



kasuan, berriz, gogoan izan behar da 2016an katastro balioak gaurkotu egin direla. TMIZari dagokionez, berriz, aparteko eragina dute bariazioan udalerrian dagoen ibilgailuen renting enpresa baten diru-sarrerak, bera baita zergaren zergadun nagusia.

- **Tasak eta bestelako sarrerak:** Diru-sarrera hauek % 17 egin dute gora 2016an aurreko ekitaldiaren aldean; ordea, 2017an % 22 inguru egin dute behera eta horren ondorioz, aztergai dugun aldiaren hasierako zifren azpitik % 8an daude. 2016ko igoera ekitaldi horretan ezohiko diru-sarrerak kontabilizatzetik dator, obra batean izandako akatsengatik abal bat exekutatu izanaren ondorioz eta biltegi batean izandako lapurretatik aseguru-etxe baten kalte-ordaina kobratu izanaren ondorioz. Aztergai-aldiak izan duen beheraldi garbia gertatu da isunek eragindako sarrerak murriztu direlako eta hirigintzako lizentziak eman direlako.
- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Diru-sarrera hauek % 7 egin dute gora 2016ko ekitaldian aurreko ekitaldiaren aldean, baina % 6 murriztu ziren 2017an; horrek aztertutako aldiaren % 1 inguruko igoera izatea ekarri du. Bilakaera hori BFAtik eratorritako sarrerak izan dutenaren oso antzekoa izan da, batik bat itunpeko zergetan parte hartzeagatik sarrerak (Udalkutxa); aztertu diren ekitaldi guztietan sarrera hauek kapituluko diru-sarrera guztien % 85 inguru egin dute.

Funtzionamendu-gastuak: Sarrera arruntek ez bezala, behera egin dute aztertutako aldiaren (% 1). Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluen arabera:

- **Langile-gastuak:** 2016an langile-gastuek ia % 21 egin dute gora aurreko ekitaldiaren aldean. Adierazitako igoeran eragina izan du 2016ko apirilean ordura arte Udalarekin zerbitzuen errentamenduko kontratuak izan zituen langile bati langile mugagabe ez finko izatera aitortu izanak; une horretatik aurrera gastuak lehenengo kapituluan erregistratuko dira (ikus A.5). 2017an, erregistraturiko langile gastuek % 5 egin zuten behera, izan ere 2016an langileei 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren zati bat ordaindu zitzaizen, 15.592 euroren zenbatekoan (ikus A.5).
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa:** Diru-sarrera hauek % 4 egin zuten gora 2016ko ekitaldian aurreko ekitaldiaren aldean; ordea, 2017an izandako beheraldiak (% 13) aztertutako aldiaren % 10 inguruko bariazio garbi negatiboa izatea ekarri du. Aztertutako aldiaren gehien murriztu diren gastuak dira lursail, bide eta errepideak konpondu eta zaintzekoak eta azterketa eta lan teknikoak. Azken hauetan, murrizketa gertatu da hainbat gastu lehenengo kapitulura aldatu direlako, aurreko paragrafoan azaldu dena. 2016an gastuak gora egin izanaren arrazoia da urte bereko urrian epai batek Udala behartu zuela 80.082 euro ordaintzera.
- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Kontzeptu honen izeneko gastuak % 13 egin du gora aztertutako aldiaren, nahiz 2016an % 14 egin duen behera aurreko ekitaldiaren aldean. Adierazitako bilakaera, nagusiki, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen gastuak izan duen jokamoldeari uztartzen zaio, nahiz aztergai izan den aldiaren gastuak izan duen



igoeran ere eragina izan duen Udaltalde XXI Nerbioi Ibaizabal SLri egindako ekarpenen igoerak.

Aurrezki gordina eta aurrezki garbia: Bi magnitudeek saldo positiboa izan dute aztertutako aldia hartu duen hiru ekitaldietan, nahiz bilakaera bestelakoa izan den batean eta bestean. Aurrezki gordinak % 16tik gorako igoera izan badu ere, aurrezki garbia ia % 14 murriztu da epe osoan, egindako zorraren amortizazioen zenbatekoen ondorioz, epe hasierako zorra aldeztatik aurretik kitatzea ekarri baitute (ikus A.9).

Kapital eragiketen emaitza: Magnitude honek saldo negatiboa erakutsi du aztertutako aldiaren lehenengo bi ekitaldietan, baina balore positiboa erregistratuko du 2017an, ekitaldi horretan inbertsio errealak besterentzeko kapituluaren kontabilizatu diren hirigintzako diru-sarreraren eraginez (ikus A.12).

Eragiketa ez-finantzarioen emaitza: Hau ere positiboa izan da aldi osoan eta % 80 egin du gora epe horretan.

Diruzaintza-geldikina: Honek ere bilakaera positiboa izan du, % 85etik gora igo baita aztertutako aldiaren, nagusiki 2017ko ekitaldian.

Zorpetzea: Aztertutako aldiaren hasieran indarrean zeuden eragiketak erabat amortizatu dira ekitaldian zehar; honenbestez, ez dago zorpetzerik 2017 itxieran (ikus A.9).

Ondorioa: Udalak egoera ekonomiko osasuntsua erakusten du eta behar hainbateko baliabideak ditu ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.



Aurrekontuaren egonkortasuna: Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena egin du aurrekontuaren egonkortasun printzipioa eta gastuaren eta zor publikoaren araua betetzen dela adieraziaz. Txostenak Udalari dagokionez honako hau jasotzen du 2017ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa dela-eta:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da, eragiketa ez finantzarioen superabita eskuratu baita.
- Gastuaren araua bete da, izan ere 2016ko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren bariazioak –diruzaintza geldikin bidez finantzatutako gastuak aintzat hartu gabe- ez zuen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGren erreferentziazko hazkuntza tasa gainditu (% 2,1).
- Zor publikoaren helburua bete du, Udalak ez baitzuen zorrik 2017ko ekitaldi itxieran (ikus A.9).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2017KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOBRA. KOBRA.	KOBRA. GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Zerga zuzenak	A.3	607	-	607	622	602	20	% 102
2. Zeharkako zergak	A.3	35	-	35	43	36	7	% 123
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	225	-	225	216	197	19	% 96
4. Transferentzia arruntak	A.4	1.251	-	1.251	1.271	1.244	27	% 102
5. Ondare-sarrerak.....		143	-	143	61	60	1	% 43
6. Inbertsio errealen besterentzea	A.12	175	-	175	213	213	-	% 122
7. Kapitaleko transferentziak.....	A.4	345	61	406	227	109	118	% 56
8. Aktibo finantzarioak		-	259	259	-	-	-	E/E
SARRERAK GUZTIRA		2.781	320	3.101	2.653	2.461	192	% 93

(*) Exekuzioaren % kalkulaturakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAIN. ORDAINK.	ORDAIN. GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Langileria-gastuak.....	A.5	767	-	767	730	715	15	% 95
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontratazioa	A.6	1.143	(12)	1.131	1.080	965	115	% 95
3. Gastu finantzarioak.....		-	-	-	-	-	-	E/E
4. Transferentzia arruntak	A.7	108	2	110	86	85	1	% 78
6. Inbertsio errealak	A.8	743	249	992	434	186	248	% 44
8. Aktibo finantzarioak		-	-	-	-	-	-	E/E
9. Pasibo finantzarioak.....	A.9	20	81	101	101	101	-	% 100
GASTUAK GUZTIRA		2.781	320	3.101	2.431	2.052	379	% 78

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOBRA./ BALIOG.	AZKEN ORDAIN. ZORRA
		ZORRA		
Kobratzeko dauden saldoak	A.10	386	-	278
Ordaintzeko dauden saldoak.....	A.11	169	-	168
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA				

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak.....	2.653
Obligazio aitortuak.....	(2.431)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	222
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	-
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	222
Finantzaketako desbideratzeak.....	(42)
Diruzaintza geldikinarekin finantzaturako gastuak.....	61
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	241



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan
DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK (A)	744
KOBRAZKEKO DAUDEN SALDOAK 2017/12/31N (B)	310
Sarrereren aurrekontutik, arrunta (ikus A.10)	192
Sarrereren aurrekontuetatik, itxiak (ikus A.10).....	108
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak (ikus A.10).....	10
ORDAINTZEKO DAUDEN SALDOAK 2017/12/31N (ikus A.11) (C)	472
Gastuen aurrekontukoa, arrunta	379
Gastuen aurrekontukoa, itxiak	1
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak	92
APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK (D)	-
DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA (F=A+B-C+D)	582
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak (ikus A.10).....	(118)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikina	(42)
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	422
ZORPETZEA 2017.12.31N (ikus A.9)	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK 2017 ETA 2016KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	ERANSKINA	2017	2016		ERANSKINA	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		11.744	11.310	ONDARE GARBIA		12.600	11.863
Ibilgetu ez-materiala	A.8	288	278	Ekarrirako ondarea.....		2.991	2.991
Ibilgetu materiala	A.8	11.244	10.941	Sortutako ondarea		9.116	8.539
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.8	209	91	Jasotako dirulag.,egotzi gab.....		493	333
Taldeko enpresetan inberts.....	A.8	3	-				
				PASIBO EZ-ARRUNTA	A.11	(86)	15
				Epe luzeko zorrak		20	20
				Taldeko entitateekin zorrak e/luz.		(106)	(5)
AKTIBO ARRUNTA		1.148	760	PASIBO ARRUNTA	A.11	378	192
Salgai dauden aktiboak.....	(*)	212	212	Epe laburreko zorrak.....		205	(24)
Zord. eta kobr. bst knt b.	A.10	182	289	Taldeko entitateekin zorrak e/lab		(15)	(15)
Finan. inberts. epe labur.....	A.10	10	-	Hartzekod. eta ordaintz. bst kntu batz.		188	231
Eskud. eta best. akt. baliok.	A.12	744	259				
AKTIBOA, GUZTIRA		12.892	12.070	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		12.892	12.070

(*) Ikus III.1 atala

EKONOMIA ETA ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUA, 2017 eta 2016KO EKITALDIETAKO A

Euroak milakotan

	2017	2016
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	1.075	971
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	1.338	1.345
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa	4	-
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	71	84
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	2.488	2.400
Langileria-gastuak.....	(730)	(769)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(86)	(65)
Hornikuntzak	-	-
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(1.080)	(1.243)
Ibilgetua amortizatzea.....	-	-
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(1.896)	(2.077)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	592	323
Arruntak ez diren beste kontu sail batzuk	-	-
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	592	323
Sarrera finantzarioak.....	5	5
Gastu finantzarioak.....	-	(1)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	13	(9)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	18	(5)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	610	318



ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA

Zaratamoko Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarrizko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Lege horiek artikulatuan udalek dituzten gaitasunak edo ematen dituzten zerbitzu publikoak definitzen dituzte; aipatzekoak dira besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina, kultur eta kirol jarduerak, e.a.

Zerbitzu horiek guztiak nagusiki hauen bitartez finantzatzen dira:

- Udal zergak.
- Berariaz aurrez aipatutako zenbait zerbitzu finantzatzen dituzten tasa eta prezio publikoak.
- Partaidetza itunpeko zergetan eta ez itunpekoetan.
- Ondare sarrerak
- Dirulaguntzak
- Kreditu eragiketak

Kudeaketa zuzen edo zeharka udalek eman dezakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

A.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

2017ko ekitaldirako aurrekontua 2017ko maiatzaren 25eko Osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hurrengo hilaren 6an eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2017ko ekainaren 11n eman zen argitara BAOn.

Ondoren, 2017ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakatuko ditugu:

KAPITULUAK	TRANSFER.	Euroak milakotan		
		KREDITUEN TXERTAK.	KREDITU GEHIGAR.	GUZTIRA
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa	(12)	-	-	(12)
4. Transferentzia arruntak	2	-	-	2
6. Inbertsio errealak	10	68	171	249
9. Pasibo finantzarioak.....	-	-	81	81
GASTUAK GUZTIRA	-	68	252	320

Adierazitako aurrekontuko ia aldaketa gehienak finantzatu ziren (% 81) Diruzaintza Geldikin erabilgarriaren zati bat baliatuta 2016ko ekitaldi itxieran, 259.312 euroren zenbatekoan, eta gainerakoa, kapitalezko dirulaguntza bidez.

Ekitaldian aurrekontua aldatzeko hiru espediente izapidetu ziren eta horietako bat Udalbatzara eraman zen onartzeko. Gainerakoak Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zituzten, kredituen transferentzia bat izan ezik (ikus III.1 atala). 2,8 milioi euroren hasierako aurrekontua % 11,5 gehitu zen eta behin betiko aurrekontuak 3,1 milioi euro egin zituen. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:

	Euroak milakotan
PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Elexaldeko saneamendu-zatia ordeztea	68
TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA	68
Udalkutxa 2016ko likidazio negatiboa (ikus A.4)	81
Herriko argien sarea berritzea	35
Bideak zolatzea	22
Beste txiki batzuk	114
KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA	252

2017ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2018ko martxoaren 21eko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2018ko uztailaren 26ko Udalbatza bitartez.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2017ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreraren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ	317
TMIZ	202
HILBIZ	13
JEZ	90
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	622
EIOZ	43
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	43
Zaborrak bildu eta desegiteagatiko tasa eta estolderia tasa	130
Lurraren, lur azpiaren edo airearen aprobetxamendu berezia enpresa hornitzaileen alde	26
Beste txiki batzuk	60
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	216
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	881

BFAk Zaratamoko Udalarri OHZ eta JEZ kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko zerbitzuak ematen dizkio, bai borondatezko aldiari, bai premiamendukoan, hasiera batean hurrenez hurren 1989 eta 1992 urteetan formalizatutako lankidetzaren hitzarmenen indarrez.

Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoak Zaratamoko udalerrian uraren hornidura eta saneamendu zerbitzua ematen du, eta zerbitzuak eragindako gastuak eta sarrerak bere gain

hartu ditu. Halaber, Udalak Partzuergoari laga dio Hiri hondakin solidoak jaso, tratatu eta desegiteagatiko tasa eta estolderia-tasa kobratzeko kudeaketa-lana.

Erantsitako taulan zerrendatutako gainerako zerga, tasa eta sarrerei dagokienez, Udalak bere gain hartu du horien kudeaketa borondatezko aldian eta kanpoko agente batekin kontratu bat dauka betearazpen-bidea erabilia diru-bilketa kudeatzeko.

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2017ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalekoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEZK.
Estatuarenak	2	-
EArenak	77	58
AO: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	17	-
AO: Moioordingo pasabidea	-	25
Osakidetza: Medikuarien kontsulta mantentzeko lanak.....	21	-
Lanbide: Enplegu planak	16	-
Beste txiki batzuk	23	33
BLHrenak	1.192	169
BFA: Zerga itunduetan partaidetza Udalkutxa.....	1.076	-
BFA: SAAD eta Gizartekutxa	100	-
BFA: Saneamenduaren eroanbidearen haustura (ustekabekoak 2015).....	-	61
BFA: Arkotxako frontoian euri-jasek eragindako kalteak (ustekabekoak 2016) ..	-	66
BFA: Elexaldeko frontoia zaharberritzea	-	42
BFA: Hainbat dirulaguntza	16	-
GUZTIRA	1.271	227

Itunpeko zergen kontzeptuan aitortutako sarrerak dira 2017ko ekitaldiko behin betiko likidazioaren konturako entregak. Udalkutxaren 2016ko likidazio behin betiko negatiboa, 81.381 eurorena, aurrekontuaren finantza pasiboen kapituluan fiskalizatutako ekitaldian gastu modura egotzi da (ikus A.9).

A.5 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena 2016ko eta 2017ko ekitaldietako aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2017ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZIO		LANPOSTU KOP.	
	AITORT. 2017	AITORT. 2016	17/12/31	
			LZ	PLANTILLA
Udalkideen ordainsariak	6	9	E/E	-
Funtzionarioen ordainsariak.....	332	345	8	3
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	208	208	7	(*) 17
2012ko abenduko aparteko ordainsari geroratua	-	16		
Gizarte Segurantza	161	169		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	23	22		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	730	769	15	20

(*) Txandakako 3 langile eta Lanbidek sustatutako enplegu planaren baitan kontraturiko 2 pertona barne hartzen ditu.

Ordainsariak

Honekin baterako taulan xehakatutako funtzionarioen ordainsariak barne hartzen dituzte lan kontratudun lau pertsonaren eta indarreko lan kontraturik ez duen beste baten ordainsariak, zeinak 2017ko ekitaldi itxieran funtzionarioentzat gordetako lanpostuak okupatzen baitzituzten. Horietako langile bati 2016an lan-kontratuko langile mugagabe izaera aitortu zitzaion.

Udalak 2017an langileei ordaindutako ordainsariak % 1eko igoera izan zuten aurreko ekitaldiaren aldean, 2017ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 18.2 artikulua finkatzen duenari jarraikiz.

Okupazioaren bilakaera

2017ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Karrerako funtzionarioak.....	-	-
Langile lan kontratudun finkoak.....	-	-
Aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	5	1
GUZTIRA	5	1

Taulan jasotako altetatik bi lanaldi partzialeko bi txanda-kontraturik dagozkie, erretiro partzialeko egoerei loturik. Beste bi kasutan, enplegua sustatzeko Lanbidek bultzatutako tokiko ekintzetarako laguntzen esparruan egindako kontratazioak dira; eta bai bosgarren alta, bai izan den baja bakarria aldi baterako ordezkapen bati dagozkie.



A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak. Hona hemen kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	Obligazio aitortuak
Errentamenduak	16
Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza	100
Azpiegitura eta ondasun orokorrak	26
Eraikin eta bestelako eraikuntzak	34
Beste ibilgetu bat	40
Bulegoko materiala	19
Hornidurak	141
Energia elektrikoa	86
Gasa eta erregaiak	33
Bestelako hornigaiak	22
Komunikazioak	17
Aseguru primak	15
Hainbat gastu	158
Festa, kultura eta euskara indartzeko jarduerak	142
Bestelako hainbat gastu	16
Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	614
Etterako laguntza zerbitzua	177
HHSak kudeatzeko zerbitzuak	136
Udal eraikinak garbitzeko zerbitzua	126
Hirigintzako aholkularitza juridikoa	49
Azterlan eta lan teknikoak (arkitektoa)	34
Kontularitzako aholkularitza juridikoa	23
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk	69
GUZTIRA	1.080



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2017ko ekitaldian, Udalak transferentzia eta dirulaguntza arruntak eman ditu; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
TRANSFERENTZIAK	20
Udaltalde XXI Nerbioi Ibaizabal SL, 2017ko kudeaketa planaren finantzaketa (*).....	19
EUDEL, urteko ekarpena	1
IZENDUNAK	32
Besopean Guraso Elkarte, urteko ekarpena (*)	13
Upo Mendi elkarte, urteko ekarpena (*)	5
Beste txikiago batzuk (6 onuradun)	14
LEHIA	34
Gizarte larrialdietarako laguntzak (*).....	32
Hizkuntzak ikasteko dirulaguntzak	2
GUZTIRA	86

(*) Aztertutako transferentzia eta dirulaguntzak.

A.8 INBERTSIO ERREALAK ETA AKTIBO EZ ARRUNTA

Hona hemen Udalaren aktibo ez arrunteko kontuen 2017ko kontu-mugimenduak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	SALDOA 17/01/01	EROSK. /ALTAK	SALDOA 17/12/31
IBILGETU UKIEZINA	278	10	288
IBILGETU MATERIALA	10.941	303	11.244
Lursailak eta ondare naturalak	144	-	144
Lursailen eta ondasun naturalen amortizazio metatua	(60)	-	(60)
Eraikuntzak	6.198	50	6.248
Azpiegiturak	262	151	413
Abian diren azpiegiturak	3.599	-	3.599
Bestelako ibilgetu materiala	798	102	900
IBILGETUKO INBERTSIOAK	91	118	209
LURRAREN ONDARE PUBLIKOA	-	3	3
AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA	11.310	434	11.744

Lursailen eta ondasun naturalen kontusailak soilik du amortizazio metatuko saldoa; ordea, duten izaera aintzat hartuta, ondasun horiek ez dira amortizatzen. Amortizazio hori 2010 eta 2014 ekitaldien bitartean zuzkitu zen eta orduz geroztik ez da bestelako zuzkidurarik egin. Lurraren Udal Ondarea osatzen duten ondasunak ez dira balantzeko idazpuru bereizi batean kontabilizatzen, ez baitago horien inventarioa besarkatuko duen ustiaketako erregistrorik; alabaina, 2017an kontusail horri kopuru txiki bat egotzi zaio.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.9 ZORPETZEA

Zorraren bilakaera ekitaldian honakoa izan da:

		Euroak milakotan					
	% interesa	iraung.	Hasierako Saldoa	Saldoa 17/01/01	Amort.	Berriak	Saldoa 17/12/31
Kutxabank SA.....	Euriborra 1 urte + 1.90	2022	142	20	20	-	-
ERABILITAKO ZORRA GUZTIRA (Ikus A.11)			142	20	20	-	-

2012ko urtean Udalak Doiketa plan bat onartu zuen eta horren babesean kreditu eragiketa bat hitzartu zuen BFaren baimenarekin, zeinaren hasierako indarraldia 2022ra bitartekoa baitzen. Ordea, 2017ko ekitaldian erabat amortizatu da aipatutako eragiketa eta indarririk gabe geratu da Doiketa plana. Amortizazio hori gastu modura erregistratu da aurrekontuko finantza pasiboen kapituluan, Udalkutxa 2016ko likidazio negatiboarekin batera, 81.381 euroren zenbatekoarekin (ikus A.4 eta A.11).

A.10 ZORDUNAK

Hona hemen balantzearen aktibo arruntean erregistraturiko zordunen eta kobratzeko beste kontu batzuen saldoen xehakapena, 2017ko ekitaldi itxieran:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Aurrekontuko zordunak.....	300
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....	(118)
ZORDUNAK ETA KOB RATZ EKO BESTE KNT. BATZUK E/LAB	182
Aurrekontuko ez diren zordunak (*).....	10
EPE LABURREKO FINANTZA-INBERTSIOAK	10

(*) Udalak egindako obra bat dela eta, BFaren aurrean gordailatutako fidantza, izan litezkeen kalteen berme modura.

Aurrekontuko zordunak

Hona hemen 2017ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalaren aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinasunaren xehakapena:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	2014 eta lehen.	2015	2016	2017	GUZTIRA
Zerga zuzenak.....	11	36	10	20	77
Zeharkako zergak.....	11	-	-	7	18
Tasak eta bestelako sarrerak.....	-	-	-	19	19
Transferentzia arruntak	-	-	-	27	27
Ondare-sarrerak	40	-	-	1	41
Kapitaleko transferentziak.....	-	-	-	118	118
AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA	62	36	10	192	300
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak					(118)
AURREKONT. ZORDUNAK GUZTIRA, ZUZKIDURARIK GABE					182

Udalak nekez egingarritzat edo ezinezkotzat jotzen ditu kontuetan sortu zirenetik 24 hilabetetik gorako antzinatasuna duten behar bezala aitortutako eskubideak (abenduarien 2ko 10/2003 Faren 48.7 artikulua, BLHren toki entitateen aurrekontuei buruzkoa) eta, baita, Trakzio mekanikodun ibilgailuen zergari dagozkion kobratzeko saldoen % 80 eta % 70 ere, hurrenez hurren 2016an eta 2017an jatorria dutenak.

A.11 HARTZEKODUNAK

Hona hemen 2016ko eta 2017ko abenduaren 31ko pasiboen xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	SALDOA 16/12/31	SALDOA 17/12/31
AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK	169	380
HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK	117	92
Jasotako fidantzak eta gordailuak	21	35
PFEZ kontzeptuan Ogasun Publiko hartzek.....	27	25
UE 6 birsailkatzeko eragiketak.....	64	29
Bestel. hartzek. ez aurrekontukoak	5	3
BANKUKO ZORPETZEA (ikus A.9)	20	-
PASIBOA GUZTIRA	306	472
Udalkutxako 2015 eta 2016ko likidazio negatiboak	(99)	(180)
PASIBOA BALANTZEAREN ARABERA	207	292
Pasibo arrunta	192	378
Pasibo ez-arrunta.....	15	(86)

Udalkutxaren 2016ko likidazio behin betiko negatiboa, 81.381 eurorena, aurrekontuaren finantza pasiboen kapituluaren fiskalizatutako ekitaldian gastu modura egotzi da (ikus A.4). Aurreko ekitaldian, berebat, aipatutako kapituluaren 2015eko likidazio negatiboa erregistratu zen, 99.171 euroren zenbatekoan.



A.12 HIRIGINTZAKO JARDUERAK ETA PLANGINTZA

Maiatzaren 11ko 3681/2015 Foru Agindu bidez, Zaratamoko HAPO onartu zen, nahiz onespren hori hainbat auzi zuzentzeari meneratua geratu zitzaion, eta etenda gelditu zen Arkotxako lurzoru urbanizagarri sektorizatuko esparruei zegokienez. Aipatutako Foru Aginduari administrazioko auzi errekurtsua jarri zitzaion eta ebatzitako epaia betez 566/2016 Foru Agindua ebatzi zen, maiatzaren 2koa, zeinak zati batean aldatu egin baitzuen aurreko Agindua. Behin beharrezko zuzenketak egin ostean, aipatutako Foru Aginduetan ebatzitakoa betez, Zaratamoko HAPOren arau testua 2016ko ekainaren 23an eman zen argitara Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Orduz geroztik igarotako aldian, berebat, zenbait jarduera-unitatetako kudeaketako hainbat baliabide onartu dira.

“Kaletarte” 6 zenbakiko Gauzatze Unitatea

2011ko otsailaren 11ko Alkatetzako Dekretu bitartez behin betiko onetsi zen “Kaletarte” 6 zenbakiko Gauzatze Unitatea Birsailkatzeko Proiektua. Dekretu hori irmo bihurtu zen errekurritu ez zutelako, baina Udalaren aurrean berrikusteko ezohiko errekurtsua aurkeztu zen, birsailkatzeko proiektuaren behin-behineko likidazioaren kontuan azaleratutako aritmetikako okerrak zuzentze aldera; errekurtsua partzialki baitetsi zen 2013ko urtarrilaren 18ko Alkatetzaren Dekretu bitartez. Dekretu horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua planteatu zen eta demandatzaileek eurek gerora hainbat errekurtsu jarri zituzten, dela behin-behineko likidazioaren saldoen aurka, dela birsailkapen proiektua onartu izanaren eta Udalak gauzatutako kobrantzarako gestioen aurka. 2017ko ekitaldian, auzi guztiak Udalaren alde ebatziak zirela, 91.664 euroren dirusarrerak kontabilizatu dira inbertsio errealak besterentzeko kapituluan, kobratzeko zeuden saldoei dagozkienak.

“Ugarte Fase III” Gauzatze Unitate Industrialia

2011ko ekainaren 10ean hitzarmen bat sinatu zuten Udalak eta lursailen jabetza zuen enpresa batek, “Ugarte Fase III” Gauzatze Unitate Industrialia kudeatzeko, eta besteak beste, jasotzen zuen eraikigarritasun haztatuaren % 15eko lurzorua Udalari lagatzeko obligazioa, hirigintzako kargatik libre, edo diruz ordaintzeko aukera. 2014ko apirilean, sektoreko lursailen % 85en jabe den enpresak, zeina aipatutako hitzarmena sinatu zuenaren eskubide eta obligazio guztietan subrogatu baitzen, Udalari proposatu zion, besteak beste, ordainketa-egutegi bat finka zezala aprobetxamenduaren % 15 diruz ordaintzeko eta hala onartu zen Alkatetzaren 2014ko apirilaren 7ko Dekretu bitartez. 2015eko abenduaren 21eko Alkatetzaren Ebazpen bitartez, 2016ko urtarrilaren 5eko BAO n argitaratu zena, behin betiko onartu zen “Ugarte Fase III” Gauzatze Unitatearen Birsailkatze Proiektuaren testu bategina; proiektuak ondare bihur zitekeen aprobetxamenduaren % 15eko balorazio eguneratua zuen gehitua eta horren arabera eguneratu zen ordainketen egutegia. Egutegi horren arabera, enpresak zorra guztiz kitatzeko urtero 2017, 2018 eta 2019ko ekitaldietan printzipaletik 121.334 euro eta interesetan 758 euro ordaintzeko obligazioa zuen. 2017ko ekitaldiko diru-



kopuruak eskubide aitortu modura erregistratu dira Inbertsio errealak eta Tasak eta bestelako sarrerak kapituluetan.

A.13 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu, Udalak 989.642 milioi euroren zenbatekoan esleitutako ondasun arrunt eta zerbitzu eta inbertsioetako zazpi kontraturen lagin bat hartuta:

KONTRATUA	Euroak milakotan					
	ESLEIPENA			GASTUA 2017	AKATSAK	
	DATA	PROZED.	ZENB.		A	B
OBRAK						
1. Txarrotako uharka zaharberritzea, II eta III faseak.....	mai-16	PGPN	116	77	A2	B2,3
ZERBITZUAK						
2. HOS jaso eta garraiatzea.....	urr-01	Irekia	360	69		B1
3. Gelak eta instalazioak garbitu eta zaintzea	mai-14	Irekia	374	126	A2,3	
4. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua.....	uzt-01	Irekia	AP	177		B1
5. Aholkularitza juridikoa.....	ots-16	PGPN	70	49	A1,3	
6. Laguntza teknikoa hirigintza gaietan	abe-14	PGPN	69	35	A1,3	B1
7. Laguntza ekonomikoa	abe-11	PGPN	AP	23	A1	B1
GUZTIRA			989	556		

AKATSAK	Euroak milakotan	
	ESLEIPENAREN ESPEDIENTE ZK.	ZENBATEKOA
A IZAPIDETZEA ETA ESLEIPENA		
1. Kanpora atera ezin daitezkeen lanak hartzen dituen kontratua	3	139
2. Pleguetan aurreikusitako esleipen irizpideetan akatsak	2	490
3. DBLO betetzeari dagozkion erabakiak kontratuan ez barne hartzea	3	513
B EGIKARITZA		
1. Kontratu-estaldurarik gabe egindako gastuak	4	(*) 304
2. Kontratua betetzean atzerapenak	1	116
3. Kontratua aldatzea espediente administratiboa tramitatu gabe	1	116

(*) akatsak eragindako gastuen zenbatekoa



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

AES	Ayudas de Emergencia Social.
AG	Administración General.
BOB	Boletín Oficial de Bizkaia.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
DA	Disposición Adicional.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia.
EELL	Entidades Locales.
IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
ICIO	Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
IVTM	Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.
IIVTNU	Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.
IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
LFPV	Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.
LGS	Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
LOPD	Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.
LRBRL	Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.
NF	Norma Foral.
OF/OOFF	Orden Foral/Órdenes Forales.
PGOU	Plan General de Ordenación Urbana.
PIB	Producto Interior Bruto.
PNSP	Procedimiento Negociado Sin Publicidad.
PPS	Patrimonio Público de Suelo.
PU	Precios Unitarios.
RD	Real Decreto.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
RSU	Residuos Sólidos Urbanos.
SAAD	Sistema de Autonomía y Atención de la Dependencia.
THB	Territorio Histórico de Bizkaia.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.





I. INTRODUCCIÓN

El TVCP, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Zaratamo para el ejercicio 2017.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: Revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, y concesión de subvenciones. Dicha revisión comprende el ejercicio de fiscalización, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias, por tener incidencia en el fiscalizado.
